

3. FUNTSEZKO SOZietATEAK

Gure kasuan bizikleta elektrikoak eskaintzen duen zerbitzua erabili ahal izateko, beste enpresa batzuekin aliantzak egitea erabaki dugu, enpresa hauen artean daude: MGS eta Occident/Seguros Bilbao.

MGS eta Occident/Seguros Bilbaorekin gure bizikletak aseguratuko ditugu, eta honela zerbait gertatzen bada bizikletak estalita egoteko.

Horrezgain, "GIANT", gure hornitzaile garrantzitsuena da, bizikletak ekoizten ditu, eta beraiekin lankidetzan hitzarmen bat dugu, non zehazten den erosten diegun bizikleta kopuruen arabera deskontu bat aplikatuko digute.

Iberdrola ere gure hornitzailea da, sorgailuak eta plaka solarrak suministratzen dizkigute, hauen bidez gure bizikletei energia elektrikoa eman al izateko.

Funtsezko bazkideak dira gure negozio-eredua gauzatzeko enpresarekin lankidetzan haritzen diren pertsonak edo erakundeak. Enpresarentzat baliabide-ezagutza edo harreman estrategikoak eskaintzen dituzten pertsonak edo enpresak.

Laburbilduz, gure enpresak aliantzak sor ditzake beste enpresa batzuekin hainbat arrazoi direla medio: negozio, arriskuak murrizteko eta baliabideak eskuratzeko, hain zuzen ere.

